Pasaiako Udala
Zk. / Nº 2022/603
Data / Fecha 2022/03/29
Dekretua / Decreto


## EBAZPENA

“Pasaian tokiko merkataritza bultzatzeko eta suspertzeko kontsumo-bonuak” ekimenaren oinarriak eta deialdiaren proposamena ikusita.

Eta erantsitako agiriak eta txostenak aztertu ondoren, eta honako araudiekin bat: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena; eta TAOL,

## RESOLUCIÓN

Vista la propuesta de bases y convocatoria de la iniciativa “Bonos de consumo para la revitalización del comercio local en Pasaia”.

Y examinada la documentación y los informes que la acompañan, de conformidad con la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones; el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones; y de conformidad con la LBRL

## EBAZTEN DUT

**LEHENA**.- Oinarri arautzaile bereziak eta deialdia onartzea, Pasaiako kontsumo-bonuak emateko, merkataritza-establezimenduak ekimenera atxikitako erakunde gisa hartzeko; eta Laurak Bat elkartea erakunde laguntzaile izendatzea.

**BIGARRENA**.- Kontu-hartzailetzak BDNSri beharrezko dokumentazioa ematea, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara dadin. Deialdiaren testua ebazpen honen eranskin gisa jasota dago.

## RESUELVO

**PRIMERO.-** Aprobar las bases especiales reguladoras y la convocatoria para la concesión de los Bonos Consumo de Pasaia, para la consideración de entidades adheridas de los establecimientos comerciales, así como la designación de la Asociación Laurak Bat como entidad colaboradora. .

**SEGUNDO.-** Suministrar, por parte de la Intervención, a la BDNS la documentación necesaria para que se proceda a la publicación del extracto de la convocatoria en el Boletín Oficial de Guipúzcoa, cuyo texto figura como Anexo de la presente Resolución.

Pasaian, 2022ko martxoaren 23an

Alkatea /La alcaldesa

ESKUa374ec1e-da78-4afc-86f1-546fe5518246

## DEIALDIA

**1.- Xedea:**
Deialdi honen xedea da kontsumo-ondasunak eta herritarrentzako zerbitzuak erosteko dirulaguntzen baldintzak arautzea, Pasaiako kontsumo-bonuak emanez, eta ekimen berera atxikitako establezimenduen sarbide-baldintzak arautzea.

**2.- Diru-izendapena:**
Ekimen honetan ezarritako helburuak lortzeko, 50.000 €-ko aurrekontua bideratu da, eta 02.480.01.433.00 partidatik finantzatuko da. Dirulaguntzen zenbatekoa 47.000 €-koa da, gutxi gorabehera.

**3.- Diruz lagun daitekeen jarduera, aplikazio-eremua:**

1. Diruz lagun daitezkeen gastuak hauek dira: Pasaiako udalerriko ekimen honetara batu diren txikizkako establezimenduetan ondasunak eta zerbitzuak erostea, oinarri hauetan arautzen diren bonuen bitartez.

2. Diruz lagundu daitekeen jardueraren esparruan sartzen dira Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan ebazpen honen I. eranskinean zerrendatutako epigrafeetan alta emanda dauden txikizkako merkatari, zerbitzu eta ostalari guztiak.

3. Atxikitako establezimenduen artean banatuko diren bonuek 15 euroko balioa dute.

- Pasaiako Udalak ekimen honetan erositako bonu bakoitzaren herena finantzatuko du, hau da: 15 €-ko bonu bakoitzeko udalak 5 euro finantzatuko ditu, eta bezeroak gainerako 10 euroak ordainduko ditu.
- Bonuak ekimenera atxikitako

## CONVOCATORIA

**1.- Objeto:**
El objeto de esta convocatoria es regular las condiciones de las subvenciones destinadas a la adquisición de bienes de consumo y servicios a la ciudadanía mediante la concesión de bonos consumo de Pasaia y regular las condiciones de acceso de los establecimientos adheridos a la misma iniciativa.

**2.- Consignación económica:**
La cuantía presupuestaria destinada para conseguir los objetivos marcados en esta iniciativa tiene una consignación de 50.000€ que serán financiados de la partida 02.480.01.433.00. La cuantía estimada de las subvenciones asciende a 47.000€.

**3.- Actividad subvencionable, ámbito de aplicación:**

1. Se consideran gastos subvencionables, la compra de bienes y servicios en establecimientos minoristas adheridos a esta iniciativa del municipio de Pasaia a través de los bonos regulados en estas bases.

2. El ámbito de la actividad subvencionable comprende todo el comercio minorista, servicios y hostelería que figure dado de alta en el Impuesto de Actividades Económicas en los epígrafes que se enumeran en el Anexo I de esta resolución.

3. Los bonos distribuidos entre los establecimientos adheridos tendrán un valor de 15 euros.

- El Ayuntamiento de Pasaia prestará en esta iniciativa la financiación de un tercio de cada bono adquirido, así de cada bono de 15 € el ayuntamiento financiara 5 euros y la o el cliente abonará los restantes 10 euros.
- Los bonos se comercializarán en los

ESKUa374ec1e-da78-4afc-86f1-546fe5518246

establezimenduetan salduko dira, erosten diren establezimenduan erabili ahal izango dira, eta aldi bakarrean gastatuko dira.

- Ekimena kudeatzeko, udalak entitate baten laguntza izango du, ekimena arintzeko eta errazteko, eta ahalik eta Pasaiako establezimendu gehienetara zabaltzeko.

establecimientos adheridos y se utilizarán únicamente en el mismo establecimiento donde se han adquirido y de una sola vez.

- Para la gestión de la iniciativa el ayuntamiento contará con una entidad colaboradora a fin agilizar, simplificar y extender entre el máximo número posible de establecimientos de Pasaia esta iniciativa.

**4.- Onuradunak:**
Pasaiako dendetan kontsumo bonuak erosten dituzten pertsona fisikoak izango dira laguntza hauen onuradunak, betiere ezarritako baliabide eta bideetatik eskuratu badituzte, eta oinarri hauetan ezarritako berariazko baldintzak betetzen badituzte.

**4.- Personas beneficiarias:**
Se consideran personas beneficiarias de estas ayudas las personas físicas que adquieran Bonos de Consumo en establecimientos de Pasaia por los medios y cauces establecidos y reúnan los requisitos específicos establecidos en estas bases.

**5.- Laguntzen izaera.**
Programa honen barruan ematen diren laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzatzat hartuko dira.

**5.- Naturaleza de las ayudas:**
Las ayudas que se concedan en el marco del presente programa tendrán la consideración de subvenciones a fondo perdido no reintegrables.

**6.- Erakunde laguntzailea:**
Laurak Bat, Pasaiako merkatari, ostalari eta zerbitzuen elkartea izendatu da erakunde laguntzaile gisa, bonuen kudeaketa koordinatzeko, eta horien justifikazioa egiaztatzeko.

Lankidetza hori elkartearekin sinatzen den urteko hitzarmenean sartuko da; eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2013 Lege Orokorrarekin bat gauzatuko da; eta lege horretan eta dirulaguntzak kudeatzeko erakunde laguntzaileentzako garapen xedapenetan aurreikusitako araubide juridikoa aplikatuko zaio erakundeari.

Erakunde laguntzaileak ez du inolako diru-kopururik jasoko bonuen kudeaketaren truke, elkartegintza eta udalerriko merkataritza-

**6.- Entidad colaboradora:**
Laurak Bat, la asociación de comerciantes, hosteleros y servicios de Pasaia, es la entidad designada como colaboradora para la coordinación de las actividades de gestión de los bonos.

La colaboración se instrumentará mediante la inclusión de dichos cometidos en el convenio de colaboración anual que se firma con dicha asociación, que se regirá por lo dispuesto en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, y de la General de Subvenciones, aplicándose a la entidad el régimen jurídico previsto en dichas Leyes y en sus disposiciones de desarrollo para las entidades colaboradoras en la gestión de subvenciones.

La entidad colaboradora no percibirá ninguna cantidad por la gestión de dichos bonos, por entenderse que se trata de una actividad que

ESKUa374ec1e-da78-4afc-86f1-546fe5518246

jarduera sustatzeko urteko hitzarmenean jada diruz lagunduta dagoela jotzen delako.

se encuentra ya subvencionada en el Convenio Anual para el fomento del asociacionismo y la actividad comercial del municipio.

**7.- Erakunde laguntzailearen betebeharrak:**

1. LAURAK BAT merkatarien elkarteak, dirulaguntza kudeatzen laguntzen duen erakundea izanik, interesa duten saltokiei informazioa emateaz arduratuko da, eta saltokietan bonuak kudeatu eta banatuko ditu, Udalak establezimendu bakoitzari esleitutako kopuruaren arabera.

2. Jarduketa horietan konfidentzialtasuna eta isilpekotasuna beteko ditu, negozio eta pertsonei buruzko datuei dagokienez, eta esku artean duen informazioa dirulaguntza-funtsak banatzeko helburuetarako bakarrik erabiliko du.

3. Guztiz debekatuta dago establezimenduen artean bereizkeriarik egitea edo tratu ezberdina ematea, eta Laurak Batek berdintasunezko tratua emango die establezimendu guztiei, elkarteko kide diren edo ez alde batera utzita.

**7.- Obligaciones de la entidad colaboradora:**

1. La asociación de comerciantes LAURAK BAT, en su condición de entidad colaboradora en la gestión de la subvención, se encargara de la información a los comercios interesados, y realizara la gestión y distribución de los bonos en los comercios según el número asignado a cada establecimiento realizada por el Ayuntamiento.

2. En la ejecución de estas actuaciones deberá observar los deberes de confidencialidad y sigilo en lo que se refiere a los datos de negocio y de personas, utilizando la información que maneja a los exclusivos fines del reparto de fondos subvencionales.

3. Está absolutamente prohibida cualquier discriminación o trato desigual a los comercios, y Laurak Bat deberá otorgar un trato igualitario a todos los comercios, con independencia de su pertenencia o no a su asociación.

**8.- Atxikitako establezimenduek parte hartzeko baldintzak:**

1. Establezimenduek honako baldintza hauek bete beharko dituzte, Pasaiako kontsumo-bonuen ekimenean parte hartzeko:

- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotea, ebazpen honen I. eranskinean zerrendatzen diren epigrafeetako batean.
- Jendaurreko salmentarako establezimendua Pasaian egotea, eta Pasaiako udalerrian JEZen altan egotea.

**8.- Condiciones de participación de los establecimientos adheridos:**

Los requisitos que deberán cumplir los establecimientos para participar en la iniciativa de los bonos consumo de Pasaia serán los siguientes:

- Que figure de alta en el Impuesto de Actividades Económicas en uno de los epígrafes que se enumeran en el Anexo I de esta resolución.
- Que tengan su establecimiento de venta al público y estén dados de alta en el IAE en el municipio de Pasaia.

ESKUa374ec1e-da78-4afc-86f1-546fe5518246

- 10 langiletik beherako plantilla izatea, eta urteko fakturazioa 1.000.000 eurotik beherakoa izatea.
- Egiaztatzea ez daudela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan onuradun izateko aurreikusitako gainerako debekuetan.
- Foru Ogasunarekiko, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrarekiko eta Pasaiako Udalarekiko betebeharrak egunean dituztela egiaztatzea

- Que tengan una plantilla inferior a 10 trabajadores y trabajadoras y con una facturación inferior a 1.000.000 euros anuales.
- Acreditarán no estar incursos en el resto de prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria previstas en el artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- Acreditar que se hallan al corriente de sus obligaciones con la Hacienda Foral, con la Tesorería General de la Seguridad Social y con el Ayuntamiento de Pasaia.

**9.-. Establezimenduak ekimenera batzeko epea:**

Ekimen honetara batzeko, establezimenduek Pasaiako Udalaren web orrian argitaratuko den eskaera-eredua bete beharko dute: www.pasaia.eus.

Eskaerak Udalaren Erregistro Elektronikoaren bidez egingo dira. Udalaren Herritarren Arretarako Zerbitzuko bulegoetan (HAZ) ere aurrez aurre aurkeztu ahal izango dira eskaerak, baldin eta eskatzailea ez badago behartuta Administrazioarekin harreman elektronikoak izatera; kasu horretan, eskabidea modu elektronikoan baino ezin izango da egin.

Eskaerak deialdi hau argitaratu eta hurrengo egunetik apirilaren 13ra bitartean aurkeztu beharko dira.

**10.- Interesa duten establezimenduek aurkeztu beharreko dokumentazioa:**

a) Ebazpen honi erantsitako eskabidea, behar bezala beteta, eta ekimen honetan parte hartzeko baldintzak betetzen direla adierazten

**9.-. Plazo para la adhesión de establecimientos a la iniciativa:**

Los establecimientos que quieran adherirse a esta iniciativa utilizarán el modelo de solicitud que se publicará en la página web del Ayuntamiento: www.Pasaia.eus

Las solicitudes se realizarán en el Registro Electrónico del ayuntamiento. También podrán presentarse en el Servicio de Atención a la Ciudadanía (SAC) del Ayuntamiento de manera presencial, siempre y cuando el solicitante no esté obligado a relacionarse electrónicamente con la Administración, en cuyo caso, solo se podrá formular la solicitud de manera electrónica.

Las solicitudes deberán presentarse desde el día siguiente de la publicación de esta convocatoria hasta el 13 de abril.

**10.- Documentación a presentar por los establecimientos interesados:**

a) Solicitud que se anexa a la presente resolución debidamente cumplimentada, y la declaración responsable del cumplimiento de

ESKUa374ec1e-da78-4afc-86f1-546fe5518246

duen erantzukizunpeko adierazpena.

b) Eskatzailea pertsona fisikoa bada, eskatzailearen NAN.

c) Pertsona juridikoa bada, eskatzailearen IFKren kopia.

**11.- Dokumentazio elkarreragilea eta egiaztagarria**

1. Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko; horrela, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, interesdunak horren aurka egiten ez badu. Administrazio publikoek elektronikoki bildu behar dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bidez edo datuen bitartekaritzarako plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema batzuei kontsulta eginez.

2. Pasaiako Udala Nisae Euskadiko Administrazioen Segurtasunerako eta Elkarreragintasunerako Nodoaren parte da; plataforma hori komuna da euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat, haien artean eta gainerako administrazioekin datu elektronikoak trukatzeko nodo autonomiko gisa. Horrez gain, Foru Administrazioak foru sare korporatiboko aplikazioak edo dokumentuak egiaztatzea eta lortzea ahalbidetzen duten beste sistema batzuk erabiliko ditu.

3. Deialdi honetan honako betekizun hauek egiaztatuko dira, korporazio-plataformen, bitartekaritza-plataformen (Nisae) edo sarbide publikoko plataformen bidez:

Euskadiko Administrazioen Elkarreragingarritasun eta Segurtasun Nodoari (NISAE) buruzko informazio-zerbitzuaren

los requisitos para participar en esta iniciativa.

b) En el caso de ser persona física, DNI del solicitante.

c) En el caso de ser persona jurídica, copia del CIF del solicitante.

**11.- Documentación interoperable y verificable**

1. La Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones, en el artículo 28 reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar los documentos que ya se encuentren en poder de la Administración actuante o hayan sido elaborados por cualquier otra Administración, de tal forma que la administración actuante podrá consultar o recabar dichos documentos, salvo que la persona interesada se opusiera a ello. Las Administraciones Públicas deben recabar los documentos electrónicamente a través de sus redes
corporativas o mediante consulta a las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas habilitados para ello.

2. La Ayuntamiento de Pasaia forma parte del nudo de interoperabilidad y seguridad de las administraciones de Euskadi Nisae, plataforma común para todas las administraciones y entidades del sector público vasco como nodo autonómico para implementar el intercambio de datos electrónicos entre ellas y con el resto de las administraciones. Además de ello, la Administración Foral hará uso de aplicaciones de la red corporativa foral u otros sistemas que permitan la verificación y obtención de documentos.

3. Los requisitos que se verificarán en esta convocatoria a través de plataformas corporativas, de intermediación (Nisae) o de acceso público serán los siguientes:

A través del Nodo de Interoperabilidad y Seguridad de las Administraciones de Euskadi

ESKUa374ec1e-da78-4afc-86f1-546fe5518246

bidez:

a) Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan eguneratuta egotea.
b) Gipuzkoako Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.

Elkarreragingarritasuneko beste tresna batzuen bidez:

c) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (JEZ) alta emanda egotea, 1. eranskineko epigrafeetako batean.
d) Banku-kontuaren titulartasuna Euskal Administrazioaren Ordainketa Pasabidearen bidez egiaztatuko da, betiere dagokion banku-erakundea bertan integratu bada.

4. Pertsona edo erakunde eskatzailea egiaztapen horren aurka badago, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa eskabidearekin batera.

**12.- Dirulaguntza emateko prozedura.**

Eskaerak aurkeztu, eta establezimenduek baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatu ondoren; Alkatetzaren ebazpena emango da, onartutako establezimenduen zerrendarekin, eta zerrenda hori udalaren web orrian argitaratuko da.

Ebazpen horren aurka egiteko, interesdunek 5 eguneko epea izango dute, egoki iritzitako alegazio eta erreklamazioak aurkezteko.

Aurkeztutako erreklamazioak aztertu ondoren, horiek ebatziko dira eta behin betiko ebazpena emango da, onartutako establezimenduen zerrendarekin.

**13.-. Atxikitako establezimenduaren betebeharrak, eta dirua trukatzeko prozedura:**

(NISAE):

a) Estar al corriente de sus obligaciones frente a la Seguridad Social.
b) Estar al corriente en el cumplimiento de obligaciones tributarias con la Hacienda Foral de Gipuzkoa.

A traves de otras herramientas de interoperabilidad:

c) Estar dada de alta en el Impuesto de Actividades Económicas (IAE) en alguno de los epigrafes del Anexo I.
d) La titularidad de la cuenta bancaria será verificada a través de la Pasarela de Pagos de la Administración Vasca, siempre que la entidad bancaria correspondiente se haya integrado en la misma.

4. En el caso de que la persona o entidad solicitante se oponga a esta verificación, será ella misma quién deba presentar la documentación, junto con la solicitud.

**12.-Procedimiento de la concesión de la subvención.**

Una vez presentadas las solicitudes y tras haber comprobado que los establecimientos cumplen todos los requisitos, se dictará una resolución de alcaldía con la relación de establecimientos admitidos que se publicará en la página web municipal.

Frente a dicha resolución, se otorgará un plazo de 5 días para que los interesados puedas presentar las alegaciones y reclamaciones que consideren pertinentes.

Una vez analizadas las reclamaciones presentadas, se procederá a resolver las mismas y a publicar la resolución definitiva con el listado de establecimientos admitidos.

**13.-. Obligaciones del establecimiento vinculado y procedimiento canje:**

ESKUa374ec1e-da78-4afc-86f1-546fe5518246

Atxikitako establezimenduek kanpainaren berri emateko materialak jaso, jarri eta zabaltzeko konpromisoa hartzen dute. Establezimenduan jarriko dituzte ikusteko moduan.

Los establecimientos adheridos se comprometen a recoger, ubicar y, en su caso, ampliar los materiales de información de la campaña, colocándolos de forma visible en el establecimiento.

Atxikitako establezimenduen arduradunek bonuak erosten dituztenen nortasunak kontrolatuko dituzte, eta bonu bakoitzean eroslearen izena eta NAN zenbakia idatziko dituzte (bonu bat baino gehiago erabiltzen bada aldi berean, nahikoa da batean idaztea).

Los responsables de los establecimientos adheridos controlarán la identidad de las personas adquirientes, anotando en cada bono (si se utiliza más de uno a la vez en uno solo bastaría) el nombre y DNI de la persona compradora.

Trukatutako bonuen aitorpena bete beharko da, hurrengo puntuan zehazten dena.

Se deberá cumplimentar la declaración de los bonos canjeados que se detalla en el punto siguiente.

**14.- Programari atxikitako establezimenduek jasotako bonuak likidatzeko prozedura:**

**14.-Procedimiento de liquidación de los bonos recibidos por los establecimientos adheridos al programa.**

Dirua itzultzeko eskaera kanpaina amaitu eta 15 eguneko epean aurkeztu beharko da.

La solicitud de reembolso, se deberá presentar en el plazo de 15 días siguientes a la finalización de la campaña.

Eskabideari kanpainan trukatutako bonuen zerrenda gehituko zaio, III. eranskineko ereduaren arabera.

A la solicitud se añadirán la relación de los bonos canjeados en la campaña, conforme al modelo del Anexo III.

Aurkeztutako zerrendatik Udalak faktura sinplifikatuak/tiketak edo erosketaren fakturak aurkezteko eskatu ahal izango du, eta errekerimendua jakinarazten denetik 5 eguneko epean aurkeztu beharko dira.

De la relación presentada el Ayuntamiento podrá requerir que se presentes las facturas simplificadas/tickets o facturas de la compra, se tendrá que presentar en un plazo de 5 días desde la notificación del requerimiento.

Dirua itzultzeko eskaerak egiteko epea bukatu ondoren, ebazpena emango da, eta establezimendu bakoitzari onartutako kopuruak adieraziko dira. Ebazpen hori udalaren web orrian argitaratuko da hilabeteko epean, dirua itzultzeko eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik kontatzen hasita.

Una vez finalizado el plazo de solicitudes de reembolso, se procederá a dictar resolución indicando las cantidades reconocidas a cada establecimiento. Dicha resolución se publicará en la página web municipal en el plazo máximo de un mes a contar desde la finalización del plazo de solicitudes de reembolso.

Ebazpena emateko organo eskuduna Tokiko Gobernu Batzarra da, eta ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari.

El órgano competente para dictar la resolución es la Junta de Gobierno Local y la misma pondrá fin a la vía administrativa.

ESKUa374ec1e-da78-4afc-86f1-546fe5518246

**15.- Bonuak banatzea eta erostea:**

1. Laurak Bat elkarteak establezimendu parte-hartzaileen artean banatuko ditu bonuak, eta horiek salgai jarriko dira onartutako establezimenduen zerrenda argitaratu ondoren.

Establezimendu bakoitzari bonu-kopuru jakin bat esleituko zaio, haren dendan saltzeko. Bonuak erosten diren establezimendu berean egindako erosketetan erabiliko dira.

Ekimen hau ahalik eta establezimendu gehienera irits dadin, 9.400 bonu egingo dira, eta ekimenera atxikitako establezimendu guztien artean banatuko dira ehuneko berean. Ekimenera batu nahi duten establezimendu guztien eskaerak jaso ondoren, udalak LAURAK BAT elkarteari jakinaraziko dio zein establezimenduk parte hartuko duten, eta zein den establezimendu bakoitzari eman dakiokeen gehienezko bonu-kopurua. Kanpaina osoan establezimendu bakoitzak gehienez ere 100 bonu jasoko ditu.

2. Pasaiako dendetan kontsumo bonuak 18 urtetik gorako pertsona fisikoek erosi ahal izango dituzte, eta erosteko garaian NANa aurkeztu beharko dute.

Onuradun bakoitzak atxikitako establezimenduetan gehienez ere 4 bonu erosi ahal izango ditu, bonuak bukatu arte. Udalak prozedura bat ezarriko du, onuradun bakoitzak gehienez ere ezarritako bonu-kopurua erosten duela kontrolatzeko, eta atxikitako establezimenduak egingo du egiaztapena.

Kontuan izanik dirulaguntzaren helburua dela txikizkako merkataritza sustatzea; eta bonuen erosleek izaera fisikoa dutela, eta gehienez ere 500 euroko hobaria jaso dezakeela onuradun bakoitzak; laguntza jasotzen

**15.- Distribución y adquisición de bonos:**

1. Los bonos serán distribuidos entre los comercios participantes por la asociación Laurak Bat para que puedan comercializarse una vez publicada la relación de establecimientos admitidos.

Cada establecimiento participante tendrá asignado un número de bonos que podrá comercializar en su comercio. Dichos bonos deberán ser utilizados en compras realizadas en el mismo establecimiento donde se adquieran.

Para que esta iniciativa llegue al máximo número de establecimientos se emitirán un total de 9.400 bonos que se repartirán en el mismo porcentaje entre todos los establecimientos adheridos a la iniciativa. Así, una vez recogidas y aceptadas por el ayuntamiento todas las solicitudes presentadas por lo establecimientos que deseen adherirse, comunicará a LAURAK BAT, qué establecimientos participarán y cuál es el número máximo de bonos que puede entregar a cada uno de ellos, estableciéndose el tope máximo en 100 bonos por establecimiento para toda la campaña.

2. Podrán adquirir Bonos de Consumo en establecimientos de Pasaia las personas físicas mayores de 18 años, presentando en el momento de la compra de los bonos el DNI.

Cada persona beneficiaria de esta subvención podrá adquirir en los establecimientos adheridos, hasta que se agoten, un máximo de 4 bonos. El ayuntamiento, establecerá el procedimiento para controlar el número máximo de bonos subvencionados adquiridos por cada beneficiario y la entidad adherida realizará dicha verificación.

En atención a la naturaleza de la subvención, cuyo objetivo es principalmente el fomento del comercio minorista, así como atendiendo a la personalidad física de los adquirientes de los bonos y el importe máximo de bonificación que

ESKUa374ec1e-da78-4afc-86f1-546fe5518246

dutenek ez dute justifikatu beharko Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. atalean aurreikusitakoa.

pueden percibir (500 euros por beneficiario) se exceptúa a los mismos del requisito de justificación de las circunstancias previstas en el apartado 2 del artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, y de la General de Subvenciones.

Bonuak erosten dituztenek 2022ko ekainaren 5era bitarteko epea izango dute bonu horiek kanpainara atxikitako establezimenduetan erabiltzeko. Epe hori bukatzean, bonuak indarrik gabe geratuko dira.

Las personas que adquieran bonos podrán utilizarlos hasta el 5 de junio de 2022 en los establecimientos adheridos a la campaña. Transcurrido dicho plazo, los bonos quedarán sin efecto.

Erosketaren zenbatekoa bonuaren zenbatekoa baino txikiagoa bada, diferentzia ez da eskudirutan itzuliko. Bonuak ezin dira eskudiruarekin trukatu, eta horien zenbatekoa ez da inolaz ere itzuliko. Bonuak arduraz erosi eta erabiliko dira, eta galdu edo ahazten badira, edo bestelako egoeraren bat gertatzen bada, ez da horien balioa itzuliko.

Si el importe de la compra es inferior al importe del bono, la diferencia no será devuelta en metálico. Los bonos no pueden ser canjeados por dinero en metálico y su importe en ningún caso será de devuelto. La compra y utilización de los bonos deberá realizarse de forma responsable, teniendo en cuenta que ningún bono o importe del mismo será devuelto por otras circunstancias que puedan derivarse de su pérdida, olvido o desconocimiento.

Oinarri hauetan arautzen den hobaria bateragarria da kontsumitzaileek beste edozein administraziotatik helburu bererako jaso ditzaketen dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin, baldin eta diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen ez bada.

Las bonificaciones objeto de las presentes bases serán compatibles con la percepción por las personas consumidoras de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad procedentes de cualquier Administración siempre que no se rebase el coste de la actuación subvencionada.

**16.- Ikuskatzea eta ez-betetzeak:**

Pasaiako Udalak egokitzat jotzen dituen egiaztapen, ikuskapen eta gainerako kontrol guztiak egin ahal izango ditu, ziurtatzeko baliabide publikoak ondo erabiliko direla eta laguntza programa hau modu egokian garatu eta aplikatuko dela.

**16.- Inspección e incumplimientos:**

El Ayuntamiento de Pasaia se reserva el derecho de realizar cuantas comprobaciones, inspecciones y demás medidas de control estime oportunas para velar por la correcta aplicación de los recursos públicos y para verificar el correcto desarrollo y aplicación del presente Programa de ayudas.

Atxikitako establezimenduek ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badute, Pasaiako Udalak Pasaiako kontsumo-bonuen programatik kanporatu ahal izango ditu, eta

En el supuesto de que hubiese algún incumplimiento por parte de los establecimientos adheridos, el Ayuntamiento de Pasaia, podrá cancelar la adhesión de los

ESKUa374ec1e-da78-4afc-86f1-546fe5518246

ez-betetzeetatik eratorritako neurriak ezarri.

mismos al programa bonos consumo de Pasaia y aplicar las medidas derivadas del incumplimiento.

Atxikitako establezimenduak eta erakunde laguntzailea behartuta daude Pasaiako Udalak laguntzen zertarakoa fiskalizatzeko eskatzen dien informazio guztia ematera.

Los establecimientos adheridos y la entidad colaboradora se obligan a facilitar cuanta información sea requerida por el ayuntamiento en el ejercicio de sus funciones de fiscalización del destino de las ayudas.

**17. Datu pertsonalak babestea**

Datu pertsonalak babesteari dagokionez, Pasaiako Udalak Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean (2016/679 EB Erregelamendua) eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera jardungo du. Bildutako datuak beharrezkoak dira Pasaiako Udalari emandako botere publikoak erabiltzeko eta legezko betebeharrak betetzeko, eta gai horretan eskumenak dituzten herri-administrazioei jakinarazi ahal izango zaizkie.

Datuen titularrek datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezabatzeko, datuen aurka egiteko eta datuen tratamendua mugatzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte. Horretarako, idatzi bat bidali beharko dute dbd-dpd@pasaia.net helbidera.

**17. Protección de datos de carácter personal**

En materia de protección de datos de carácter personal el Ayuntamiento de Pasaia sujetará su actuación a lo dispuesto en el Reglamento General de Protección de Datos (Reglamento UE 2016/679) y en la Ley Orgánica 3/2018, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales. Los datos recabados son necesarios para el ejercicio de poderes públicos conferidos al Ayuntamiento de Pasaia y el cumplimiento de las obligaciones legales y podrán ser comunicados a Administraciones Públicas con competencias en la materia.

Las personas titulares de los datos podrán ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación del tratamiento, enviando comunicación dbd-dpd@pasaia.net

**18. Araubide juridikoa**

Ematen diren laguntzak oinarri hauetan jasotako arauen arabera arautuko dira, eta, osagarri gisa, DLOn eta hura garatzeko Erregelamenduan jasotako arauen arabera (887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, DLOren Erregelamendua onartzen duena).

Era berean, araudi horretan aurreikusten ez den guztian, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Sektore Publikoaren

**18. Régimen Jurídico**

Las ayudas que se otorguen se regirán por las normas contenidas en estas Bases y, supletoriamente, por las normas contenidas en la LGS y su Reglamento de desarrollo aprobado por el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la LGS.

Asimismo, y en lo no previsto en dicha normativa, serán de aplicación las Leyes 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones

ESKUa374ec1e-da78-4afc-86f1-546fe5518246

Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea aplikatuko dira.

## 15. Helegiteak

Administrazio bidea amaitzen duen deialdi honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa ezarri ahal izango dute interesdunek, hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Públicas y 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

## 19. Recursos

Contra la presente convocatoria, que agota la vía administrativa, podrán las personas interesadas interponer recurso potestativo de reposición, en el plazo de un mes a partir del siguiente a su publicación o directamente recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Donostia San Sebastián en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación.

ESKUa374ec1e-da78-4afc-86f1-546fe5518246

# Anexo I. Epigrafes IAE

**Comercio**

641. Comercio al por menor de frutas, verduras, hortalizas y tubérculos.
642. Comercio al por menor de carnes y despojos; de productos y derivados cárnicos elaborados, de huevos, aves, conejos de granja, caza; y de productos derivados de los mismos.
643. Comercio al por menor de pescados y otros productos de la pesca y acuicultura y de caracoles.
644. Comercio al por menor de pan, pastelería, confitería y similares y de leche y productos lácteos.
645. Comercio al por menor de vinos y bebidas de todas clases.
646. Comercio al por menor de labores de tabaco y de artículos de fumador.
647.1. Comercio al por menor de cualquier clase de productos alimenticios y de bebidas en establecimientos con vendedor.
647.2. Comercio al por menor de cualquier clase de productos alimenticios y de bebidas en régimen de autoservicio o mixto en estable- cimientos cuya sala de ventas tenga una superficie de venta inferior a 120 $m^2$.
647.3. Comercio al por menor de cualquier clase de productos alimenticios y de bebidas en régimen de autoservicio o mixto en superservicios, denominados así cuando su sala de ventas se halle comprendida entre 120 y 399 $m^2$.
651. Comercio al por menor de productos textiles, confección, calzado, pieles y artículos de cuero.
652.1 Farmacias. Comercio al por menor de medicamentos, productos sanitarios y de higiene personal.
652.2. Comercio al por menor de productos droguería, perfumería y cosmética, limpieza, pinturas, barnices, disolventes, papeles y otros productos para la decoración y de productos químicos.
652.3. Comercio al por menor de productos de perfumería y cosmética, y de artículos para la higiene y el aseo personal.
652.4. Comercio al por menor de plantas y hierbas en herbolarios.
653. Comercio al por menor de artículos para el equipamiento del hogar y la construcción.
654.2. Comercio al por menor de accesorios y piezas de recambio para vehículos terrestres.
654.5. Comercio al por menor de toda clase de maquinaria (excepto aparatos del hogar, de oficina, médicos, ortopédicos, ópticos y fotográficos).
654.6. Comercio al por menor de cubiertas, bandas o bandejas y cámaras de aire para toda clase de vehículos.
656. Comercio al por menor de bienes usados tales como muebles, prendas y enseres ordinarios de uso doméstico.
657. Comercio al por menor de instrumentos musicales en general, asi como de sus accesorios.
659. Otro comercio al por menor.
662. Comercio mixto o integrado al por menor.

**Hostelería**

671 Servicios en restaurantes
672 En cafeterías
673 De cafés y bares, con y sin comida
675 Servicios en quioscos, cajones, barracas u otros locales análogos situados en mercados o plazas de abastos al aire libre en la vía pública o jardines
676 Servicios en chocolaterías, heladerías y horchaterías
691.1. Reparación de artículos eléctricos para el hogar.
691.9. Reparación de otros bienes de consumo n.c.o.p.

**Otros servicios relacionados con la actividad comercial urbana**

971. Lavanderías, tintorerías y servicios similares.
972. Salones de peluquería e institutos de belleza.
973.1. Servicios fotográficos.
973.3. Servicios de copias de documentos con máquinas fotocopiadoras.
975. Servicios de enmarcación.

ESKUa374ec1e-da78-4afc-86f1-546fe5518246

**Merkataritza**

641. Fruta, barazki, ortuari eta tuberkuluen txikizkako merkataritza.
642. Haragi eta barrukien txikizkako merkataritza; haragikiak eta haren eratorri landuak; arrautzak, hegaztiak, baserri-untxiak, ehiza eta horietatik eratorritakoak.
643. Arrain eta arrantza zein akuikulturako beste produktu batzuen eta barraskiloen txikizkako merkataritza.
644. Ogi, pastel, gozoki zein antzekoen eta esne zein esnekien txikizkako merkataritza.
645. Ardo eta mota orotako edarien txikizkako merkataritza.
646. Tabako laboreen eta erretzaile gaien txikizkako salmenta.
647.1. Edozein motatako elikagai eta edarien txikizkako merkataritza.
647.2. Edozein motatako elikagai eta edarien txikizkako merkataritza, autozerbitzu erregimenean edo erregimen mistoan, 120 m2-tik beherako azalera duten saltokietan.
647.3. Edozein motatako elikagai eta edarien txikizkako merkataritza, autozerbitzu erregimenean edo erregimen mistoko superzerbitzuetan (halakotzat hartuko dira 120 eta 399 m2-ko azalera dutenean).
651. Ehungintzako produktuak, jantzigintza, oinetakoak, larruak eta larruzko gaiak txikizka saltzea.
652.1. Farmaziak. Sendagaien, osasun-produktuen eta higiene pertsonaleko produktuen txikizkako merkataritza.
652.2. Drogeria, lurringintza eta kosmetika, garbiketa, pintura, berniz, disolbatzaile, paper eta dekoraziorako eta produktu kimikoetarako beste produktu batzuen txikizkako merkataritza.
652.3. Lurringintzako eta kosmetikako produktuen, eta norberaren higienerako eta garbiketarako gaien txikizkako merkataritza.
652.4. Belar-dendetan landare eta belarren txikizkako merkataritza.
653. Etxeko ekipamendurako eta eraikuntzarako gaien txikizkako merkataritza.
654.2. Lurreko ibilgailuentzako osagarrien eta ordezko piezen txikizkako merkataritza.
654.5. Mota guztietako makineriaren txikizkako merkataritza (etxeko aparatuak, bulegokoak, medikuak, ortopedikoak, optikoak eta argazkigintzakoak izan ezik).
654.6. Mota guztietako ibilgailuetarako estalkien, banden eta aire-ganberen txikizkako merkataritza.
656. Ondasun erabilien txikizkako merkataritza, hala nola altzariena, jantziena eta etxean erabiltzeko ohiko tresnena.
657. Oro har, musika-tresnen eta horien osagarrien txikizkako merkataritza.
659. Bestelako txikizkako merkataritza.
662. Txikizkako merkataritza mistoa edo integratua.

**Ostalaritza**

671. Jatetxeetako zerbitzuak
672. Kafetegietako zerbitzuak
673. Kafeak eta tabernak, janariarekin eta janaririk gabe.
675. Merkatuetan, aire zabaleko hornidura-plazetan edo bide publikoan edo lorategietan kokatutako kioskoetan, tiraderetan, barraketan edo antzeko beste lokal batzuetan zerbitzuak ematea.
676. Txokolategi, izozkitegi eta urtxategietako zerbitzuak.
691.1. Etxerako gai elektrikoak konpontzea.
691.9. Bestelako kontsumo-ondasunak konpontzea b.i.s.g.

**Hiriko merkataritza-jarduerarekin lotutako beste zerbitzu batzuk**
971. Ikuztegiak, tindategiak eta antzeko zerbitzuak.
972. Ile-apaindegiak eta apaindegiak.
973.1. Argazki-zerbitzuak.
973.3. Fotokopiagailuekin dokumentuen kopiak egiteko zerbitzuak.
975. Markogintza-zerbitzuak.

ESKUa374ec1e-da78-4afc-86f1-546fe5518246

ANEXO II ESKAERA E078

PASAIAKO UDALA

**Herriko komertzioetan kontsumoa aktibatzeko kontsumo-bonuen ekimenera atxikitzea**

Adhesión a la iniciativa de bonos de consumo de Pasaia para promover al consumo local

E078

**ESKAERA AURKEZTEN DUEN PERTSONA EDO ENTITATEA** / PERSONA O ENTIDAD QUE PRESENTA LA SOLICITUD

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **1. abizena** / 1.er apellido | **2. abizena** / 2.º apellido | **Izena** / Nombre | | **NAN-AIZ-Pasaportea** / DNI-NIE-Pasaporte |
| **Kalea** / Calle | **Zk.** / N.º | **Solairua**/Piso | **Aldea**/Mano | **Telefonoa(k)** / Teléfono(s) |
| **P.K.** / C.P. | **Herria** / Municipio | **Lurraldea** / Provincia | | **e-posta** / e-mail |

**SALTOKIAREN DATUAK** / DATOS DEL ESTABLECIMIENTO

| |
|---|
| **Honako SALTOKI hau ordezkatzen dut (IZEN SOZIALA):**<br>Represento a este ESTABLECIMIENTO (RAZÓN SOCIAL): |
| **Saltokiaren IFZ :** / NIF del establecimiento: |
| **Saltokiaren izen komertziala:** / Nombre comercial del establecimiento: |
| **Jarduera Ekonomikoen Zergaren (JEZ) epifrage nagusia:**<br>Epígrafe principal de Impuesto Actividades económicas IAE: |
| **Kalea** / Calle · **Zk.** / N.º · **Solairua**/Piso · **Aldea**/Mano · **Telefonoa(k)** / Teléfono(s) |
| **P.K.** / C.P. · **Herria** / Municipio · **Lurraldea** / Provincia · **e-posta** / e-mail |

**BANKUKO KONTU ZENBAKIA (IBAN kodea: 24 digitu) /** NÚMERO DE CUENTA BANCARIA (Código IBAN: 24 dígitos)

| | |
|---|---|
| **Titularra** / Titular | |
| **NAN-IFZ** / DNI-NIF | |
| **Kontua** / Cuenta | E S |
| ☐ | **Baimena ematen diot Pasaiako Udalari goian zehazten dudan bankuko kontu zenbakiaren titulartasuna egiaztatzeko.**<br>Autorizo al Ayuntamiento de Pasaia a comprobar la titularidad de los Números de Cuenta Bancaria arriba indicados. |

**ZINPEAN HONAKO HAU AITORTZEN DUT** / DECLARO BAJO JURAMENTO

☐ **Adierazten dut ez dudala dirulaguntzak jasotzeko inolako debekurik.**
Declaro que no estoy incurso/a en ninguna de las prohibiciones para ser beneficiario o beneficiaria de subvenciones.

☐ **10 langile baino gutxiago ditut eta urtean 1.000.000 eurotik beherako fakturazioa.**
Tengo una plantilla inferior a 10 trabajadores y trabajadoras y con una facturación inferior a 1.000.000 euros anuales.

| | |
|---|---|
| Pasaiako Udalak informazioa kontsultatu edo bildu ahal izango du, honako hauek egiaztatzeko, Euskadiko Administrazioen Elkarreragingarritasun eta Segurtasun Nodoari (NISAE) buruzko informazio-zerbitzuaren bidez: | El Ayuntamiento de Pasaia podrá consultar o recabar información para comprobar a través del Nodo de Interoperabilidad y Seguridad de las Administraciones de Euskadi (NISAE): |
| a) Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean edukitzea kontsulta. | a) Consulta de estar al corriente de pago de obligaciones con TGSS. |
| b) Zerga-betebeharrak egunean izateari buruzko kontsulta (Gipuzkoako Foru Aldundia). | b) Consulta de estar al corriente de obligaciones tributarias (Diputación Foral de Gipuzkoa). |
| Halaber, informazioa kontsultatu edo bildu ahal izango du, honako hauek egiaztatzeko: | También podrá consultar o recabar información para comprobar: |
| c) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (JEZ) alta emanda egotea I. eranskineko epigrafeetako batean, Jarduera Ekonomikoen gaineko zerga ataleko Udal Zergak Kudeatzeko Zerbitzuan. | c) Estar dada de alta en el Impuesto de Actividades Económicas (IAE) en alguno de los epígrafes del Anexo I a traves del servicio de tributos locales de la Sección del Impuesto sobre Actividades Económicas. |



ESKUa374ec1e-da78-4afc-86f1-546fe5518246

| | |
|---|---|
| d) Banku-kontuaren titulartasuna Euskal Administrazioaren Ordainketa Pasabidearen bidez egiaztatuko da, baldin eta dagokion banku-erakundea bertan sartu bada. | d) La titularidad de la cuenta bancaria será verificada a través de la Pasarela de Pagos de la Administración Vasca, siempre que la entidad bancaria correspondiente se haya integrado en la misma. |
| (*) Datu horiek ez direla kontsultatu edo bildu behar iritziz gero, eskatzaileak justifikatu beharko du zergatik dagoen horren aurka (Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamenduaren (EB) 21.artikulua), arrazoiak emanez, eta hori egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko du. | (*) En caso de considerar que no se deben consultar o recabar estos datos, el/la solicitante deberá justificar motivadamente su oposición (art. 21 del Reglamento (U.E.) 2016/679 de Protección de Datos), además de aportar el documento que acredite tal extremo. |

| **AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA** / DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR |
|---|
| ☐ **NANaren edo IFZren kopia** / Copia del DNI o del NIF |

| **Data** / Fecha | **Sinadura** / Firma |
|---|---|
| | |

| **DATU PERTSONALEN BABESA** | **PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL** |
|---|---|
| **Tratamenduaren arduraduna**: Pasaiako Udala.<br>**Datuen Babesaren Ordezkariaren e-maila**: dbd-dpd@pasaia.net (datuen babesarekin zerikusia duten gaietarako bakarrik erabiltzeko)<br>**Xede orokorra:** Udalak kudeatzen dituen prozedura eta espedienteak tramitatzea.<br>**Tratamendu Jardueren Erregistroa (Xede espezifikoa; Zilegitasuna; Lagapenak)**: https://www.pasaia.eus/TJE<br>**Eskubideak**: Irispide-eskubidea, Zuzentzeko, Ezerezteko, Tratamendua mugatzeko eta Aurka egiteko: https://www.pasaia.eus/DBLO-Eskubideak<br>**Informazio gehiago**: www.pasaia.eus/DBLO | **Responsable del tratamiento**: Ayuntamiento de Pasaia.<br>**E-mail del Delegado/a de protección de datos**: dbd-dpd@pasaia.net (utilizar sólo para cuestiones relacionadas con la protección de datos)<br>**Finalidad general:** Tramitar los procedimientos y expedientes que gestiona el Ayto.<br>**Registro de Actividades de Tratamiento (Finalidad específica; Legitimación; Cesión)**: https://www.pasaia.eus/RAT<br>**Derechos**: De Acceso, de Rectificación, de Supresión, de Oposición y de Limitación: https://www.pasaia.eus/LOPD-Derechos<br>**Más Información**: www.pasaia.eus/LOPD |

ESKUa374ec1e-da78-4afc-86f1-546fe5518246

| | | | |
|---|---|---|---|
| PASAIAKO UDALA<br><br>**KONTUHARTZAILETZA** | **Espediente zk.:** / N.º expediente:<br>**2020FBON0001** | KONTSUMO BONOAK<br>BONOS CONSUMO | **Espediente zk.:** / N.º expediente:<br>**2020FBON0001** |
| | **Sarrera-erregistroa /** Registro de entrada | | |
| | **Titularra:** / Titular: | PASAIAKO UDALA | |
| | **Ordezkaria:** / Representante: | | |
| | **Gaia:** / Asunto: Kontsumo bonoak | | |

ANEXO III. RELACIÓN DE LOS BONOS CANJEADOS

PASAIAKO UDALA

**"PASAIAKO TOKIKO MERKATARITZA SUSTATZEKO ETA SUSPERTZEKO KONTSUMO-BONUAK" IZENEKO EKITALDIAN TRUKATUTAKO BONUEN ADIERAZPENA**

DECLARACIÓN DE LOS BONOS CANJEADOS EN LA INCIATIVA "BONOS DE CONSUMO PARA LA PROMOCIÓN Y REACTIVACIÓN DEL COMERCIO LOCAL EN PASAIA"

E107

| **ONURADUNA** DNI BENEFICIARIO/A | | **BONO ZENBAKIA** NÚMERO BONO | **TRUKEAREN DATA** FECHA DE CANJE | **FAKTURA ZK.** Nº DE FACTURA | **FAKTURA DATA** FECHA DE FACTURA | **FAKTURAREN ZENBATEKOA** IMPORTE FACTURA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **NAN** / DNI | **IZEN ABIZENAK** NOMBRE Y APELLIDOS | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |

**ANTXO:** Hamarretxeta kalea, 22-24
**DONIBANE:** Donibane kalea, 19
**TRINTXERPE:** Euskadi etorbidea, z/g. Alkatordetza

8:00-14:00

IFZ / NIF

www.pasaia.eus/izapideak
www.pasaia.eus/tramites



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUa374ec1e-da78-4afc-86f1-546fe5518246**

*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06410***

*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06410***